

## ERDIAROKO EUSKAL-IZENEN IDAZKERA

Jarrai dezagun, UGAO arresiz ingurututako Villanueva de Miravalles biurtzeko, 1375'garren urtean Bizkaiko III Jon'ek idatziaz zuan larrukiaren azterketa.

40 toki-izen damaizkigu idazki orrek, eta beste bi, -ABENDAÑO ta OLABARRIETTA,- lau urte geroago jozi zitzaion eraskiñak.

Izen oietatik, iru bakarrik, UGAO, BILBAO eta HARDEARAETTA, azaldu genituan gure azken-lanean, toki aundia artu bait zigun HARDEARAETTA ori zer ote dan eta non ote zegoan adierazi naiak.

BILBAO'ri-buruz, onako auxe esan nai nizueke: Oroituko zerate, nik, Bizkaiko Uri Nagusiaren izena, egiazko euskal-izena, BILBAO dala eta ez BILBO, nola esaten nuan. BILBO ori Shakespeare'rengandik datorkigula, arek bere bi antzerkitan HAMLET eta THE MERRY WIVES OF WINDSOR deritzanetan, ezpata-mota bateri eta esku-billurrei deitzeko itz ori, BILBO, BILBOES, darabilkialako.

Orra ba, Kerexeta'k eskutitz batean, bera ere nerekin bat datorrela adierazten dit: Bilbao'ren egiazko izena, euskeraz, BILBAO dala; ez BILBO. Orixe bera esan izan oi dit Zubiri'tar Iñaki'k ere. Pozik azaltzen dut emen ori. Balio aundikotzat bait daukat, bi idazle bizkaitar bikain oien iritzia.

HARDEARAETTA'z, esan nuan, orrenbeste toki izenen ar-

tean ori bakarrik dala larruki onek H'z ematen digun izena. Baita're, esan nuan, dokumentu bat batean maiz agertzen dala itz bera batzuetan H'z eta besteetan H'rik gabe idatzia.

Ona, larruki onek berak gai ortaz ematen dizkigun adibi-deak... gaztelera ber-berezko itzetan:

CONTTHENIDO,-, CONTTENIDA,-, CONTTHIENE. «...según que en ella es *contthenido*.-. «Una clausula... en el dicho preuilegio *conttenida*.-. «segun en el dicho preuilegio se *contthiene*».

«ES» aditza ere batzuetan «H'rik gabe, «*es contthenido*» eta beste batzuetan H'z, ikusiko duzu: «Nuestra voluntad *Hes*»; como dicho *Hes*»; «En nombre de Dios que *hes* comienzo y fin de todas las cosas».

Gaurko «ahora», batzuetan H'z, baiña ez H'a gaurko lekuan jarrita, eta beste batzuetan H'rik gabe: «...los que *haora* moran en dichas comarcas».-. «...no era tal razon como *aora*».-. «...que la ponian *aora*».

Berdin darabilki «ESTTE» izenorde erakusle edo «demotrati-bua» ere: «*Este* tal acrecentamiento», eta, *hesto* ante mi...»

«ESTAR» ere ikusiko duzu H'z jantzia: «*Este* tal acrecentamiento... se hace y *hestta* en dos cosas».

«HABER» aditzaren erak barzuk H'z, besteak gabe: «*hauian*» eta «*ouiesse*» (gaurko «habían» eta «hubiese»). «*vbo*», (gaurko hubo).

«THESSORERO», H'z dakar. Lateraz ere THESAURARIUS H'z idazten zala? Bai; baiña... «HESQUINA?»

Nai zuten bezala idazten zutela, antziñako lumalari aiek, ortografiari jaramonik egin gabe!. Orregaitik, txepelkeri aundia izan zan euskeran H'a sartzea. Esan zien Arantzazu'n Lafitte'k, naiz bera ipartarra izan, orrelako txatxukeririk ez egiteko! Alperrik.

Parregarria litzake H'aren arazo guztia negargarria ez balitz. Euskerari izugarrizko kaltea egitera bait dator H ori; il zorian

dagoan eta berez ain zailla dan izkera bati zailtasun geiagoz arnasa estutzera bait dator.

Baiñan, euskeraren onura ez baiña beste aize illunago batek bultzatzen zituan Arantzazu'ko atxezale aiek.

\*\*\*

Aztertu'itzegun, ordea, gure larruki ontako beste izen batzuk:

ARAETTA. Gaurko Areta dugu, Laudio'ren auzo bat. Araetta orrekin badu eskierki zer ikusirik larruki ontako HARDEARAETTA'k era. Gardearaeta bait da seguruaski.

Areta, gaur mundu guztiak, etimologiz, «are-eta» dala esango dizu, ots, «ondar-eta».

Baiñan, gaurko ARETA'ren egiazko izena ez ote da ARAETA? Etimologia billatzeko, ortaz, onela zatitu bearko genduke izen ori: ARA-ETA.

Asko dira Euskalerrian «ARA»z asten zaizkigun itzak: ARA-BA, ARAGOI. (Ez aztu Aragoi'en erdiaro guztian, gure dokumentu au idatzi zanean eta baita geroago ere, euskeraz itzegiten zala. Baita Ueska eta Jaka urietan ere; 1349<sup>o</sup> garren urtean gotzai batek an elizetan itzaldiak euskeraz ere egiteko agindu bait zuan).

Ain zuzen, ARA, Ueska'n dagoan ibai baten izena duzu; Ueska'ren sortaldean. Ikusi, bere ibilleran Zinka ibaiean amaitu-aurretik zer errietatik igarotzen dan: AIERBE, SARBISE, edo SARBITSE, ARRESA, JABIERRE, LIKERRI, ASKASO...

Ez al dute izen oiek izugarritzko euskal-usaia? Ba, aruntzago oraindik, Lerida'ko lurretan, ARAOS daukagu: Gipuzkoa'ko ARAOZ'en senide, ezipairik gabe.

Erromatarrek, gaurko Lerida'ren lurraldeetan «ilergetak» bizi zirala esan ziguten, eta ilergeta aiek euskaldunak zirala.

«ARA»ren etimologia maxiatzea, beste egun baterako utzi-

ko dugu.

ARRAIN. Bizkaï'ko Jaunak, «Villa Nueva de MIRABALLES» uri berriaren mugak ezartzeko aurkezten duan toki-izen bat da: «...y por la hesquina de Sagasola, y dende a Vpo, y dende a los llanos de ARRAIN, dende a la hesquina de Adaro por do parte con Arratia».

ARRAIN: Aurritzia, «AR», ulert-erreza dugu. Baiña atzizkia? «AIN»? Baduzu auxe, amaika iskamil sortu duan atzizkia! Ugaria, arras, Euskalerrriaren iparralde eta erdialdian; baiñan ez duzu egoaldeko zelai legorretan aurkituko: Naparroa'ko Erriberan adibidez.

Lopez Mendizabal'dar Ixaka'k, bildu zituan atzizki ori duten 486 izen! Geianak Gipuzkoa'n: 239. Naparroa'n urrena: 170. Gero Araba'n: 22. Gutxiago Laburdi'n, (21); Bizkaia'n, (19); Benaparroa'n, (10) eta Zubero'n (5).

Akitani'n, gure «AIN» ori, «EIN» biurtzen da; eta baita Zubero'n ere batzuctan. Orrela, Zubero'ko UNDUREIN (oroi zuberotarrek «u» ori «ū» frantzerazko «u»ren antzera «i» illun bat agoskatzen dutela) eta Erronkari'ko INDURAIN izen bat bera omen dira. Baietz, esango nuke nik ere. Nere ustez, itz askotan beintzat, «AIN» ori eta «AIEN» atzizki berdiñak dira. ELDUAIEN, Gipuzkoa'ko erri bat da. ELDUAIN esaten dio bertako jendeak. LABAIN esaten zaio Naparroa'ko LABAIEN'eri, era berean. Ezaguna da erriaren ziri-abestia:

Labain'go apaizak seme bat omen du;  
Osaba esaten dio; berak ala nai du.  
Aitak meza eman, da semeak lagundu:  
Gauza ederragorik nork pentsatuko du?

Ortaz Gipuzkoa'ko Andoain ANDOAIEN eta Araba'ko Urabain, URABAIEN izango lirake. Eta berdin, AIN atzizkiz amaitzen diran beste abizen eta toki-izen asko.

«AIN» eta «IN» atzizkiak, IN'ek A galdu dualako ez ote dira atzizki bat bera? Araba'ko ANDOIN, Gipuzkoa'ko ANDOAIN ez

ote da? eta ARGANTZOIN, ARGANTZOAIN? Ortaz, atzizki bat ote ditugu, «AIN» «AIEN» «IN» eta «OINA», «OÑA». Ez dut uste. «OIN» eta «OÑA» seguruaski biak atzizki bera dirala, baiña «AIN»ekin eta «IN»ekin zer ikusirik ez dutela iduritzen bait zait.

Beste egun batean mintzatuko gera «OIN» eta «OINA» edo «OÑA» oietaz.

Norbaitek esan du «AIN» atzizkia, «GAIN» dala. Baietz esango nuke nik, izen askotan beintzat. Adibidez, LABAIN «laba-gain» edo «labe-gain» dala.

ELDUA, Beotibar ibaican Gipuzkoa'ko errixka bat duzu. An bertan, baiño gorago, aurkitzen da ELDUAIN ere. Beraz, arazoizko gauza dirudi ELDUAIN «Eldua-gain» dala pentsatzea. Eta URKAIN, «uarka-gain» dala. (Uarka, errotetako ur-bildegia-ri esaten zitzaion).

Baiñan UKARAN deritzan toki-izen bat ere bait da Euskalerrian... «AIN», izen batzuetan, «ARAN» ote dugu? Norbaitek badió AIESTARAN eta AIESTRAIN izen bera dirala; ori dokumentuz oinarriturik dagoala; baiña, ez bait du geiagoko xeetasunik ematen... eta izen bat bakarra ez bait da naikoa aburu sendo bat osotzeko... nik bi «ARAN» eta «AIN» oiek embor bat berari erantsitako bi atzizki ezberdiñak dirala esango nuke.

Araba'ko AGURAIN, dokumentuetan, AGURAIN eta AGIRGAIN bezala ere agertzen zaigu. GAIN da beraz izen ortako AIN atzizkia.

1025'ean, Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxeari Araba'ko errick ordaindui bar zizkioten burni-barrei buruzko larrukian, Agurain, HAGURAHIN ikusiko duzu. AGURAGIN idatzi naiko zuan bearbada lumalari ark, sarritan, «G» adierazteko «H» idazten bait zan aro zaar aietan. AGURAGIN'dik AGURAGAIN'era ez dirudi tarte aundia dagoanik. Baiñan Agurain, Agurgain, Agirgain eta Aguragain oietan, «AIN» «GAIN» ba'da, zer ote da itzaren emborra: «AGUR», «AGIR» edo «AGURA» ori? (Azkeneko «AGURA» ori nai ba'duzu, lumalari zaar arek, Hagurahin idatzi

zuanean, AGURAGAIN ez baiña, -batere baliorik gabeko bigarren «H» bat sartuaz,- soilki AGURAIN idatzi nai izatea, baleikén gauza bait da).

Caro Baroja'k «AIN» «AI» oiek «AU» eta «AUN» izan daitezke-la uste du, erriak adibidez, LAZKANO «LAZKAU» biurtu dualako. Eta AU ori laterazko «ANO» oimen da. Españizale guztien poza duzu, gaur-egun, euskera osoa latiña biurtu nai izate ori, joan dan mendeko euskaltzale ameslarien ustea, munduko izkuntza guztiak euskeraren bidez argitzea izan zan bezala.

Baiñan kontun euki bezate españizaleek, Lazkano'ko erriak, LAZKAU ez baiña LAZKAO esaten diola bere erriari, eta «ANO»z amaitzen diran itzik geienak euskaldunon españetan ez dirala AO edo AU biurtu. Araba'ko BARAÑANO adibidez. Eta LEGUTIANO, ARBIGANO, KILTXANO, eta beste asko eta asko, eta Bizkaï'ko OTXANDIANO ere lekuko dirala. «OTXANDIO» esan oi zaio OTXANDIANO'ri. Ez «OTXANDIAU».

Esan dezagun, gai au amaitzeko, Nafarroa'n atzizkiz amaitzen diran aidetasun aundiko itzak: LEPUSAIN-IPUGARANA, 1487'ko Iarruki batean; BASKARAIN-BASKARANA; GARZARAIN-GARZARAN; URDIAIN-URDINARAN. «BARANDIARAN» itzak ere badu «BARANDIAIN» senide bat.

Beste oartxo bat: Akitani'n gure «AIN», «EIN» biurtzen bada, ez ote da ori atzizkiaren aurreko itza «A»z amaitzen dalako? Ori gertatzen bait da agian gure artean ere.

Esan dugu ELDUAIN (Eldua-gain) idatzi, ELDUAIEN idatzen dala.

Itz orren enborra, «ELDUA» dugu; eta atzizkia, «AIEN», «A»z amaitzen da ura eta «A»z asten berriz au. Bi «A» oiek alkartu ezkerro, doiñu zakarrezko itz bat 'sortuko litzaiguke: ELDUAAIN. Kakofoni, edo «doiñutxar» ortik iges egiteko, «AIN», «IEN» biurtzen zaigu, orrela doiñu atsegiñeko izen bat sortuaz: ELDUAIEN. Eta LABAAIN orde, LABAIEN.

Araba'n Okendo'ko auzo batek IRABIEN deritza. IRABAIN

ote da? ISABA bat bada Naparroa'ko Erronkari'n. ISABIEN'ik ez dit ezagutzen.

IRABIEN itza «IRABA-AIN»en «eufonizatze» edo «doiñu-obeagotze» bat balitz ere, ez dut uste «IRABA-AIN» «IRABA-GAIN»en aldakuntza bat dala esan daitekeanik; beraz, «beean» esan nai duan atzizki bat, «goian» esan nai duan beste batekin ez bait da errez «ezkontzen».

Bai ordea, errez izan daiteke «IRABI-GAIN». «IRA», «garoa» da. «BI», eta «DI», ugarotasunaren adigarri. Ortaz, «IRABIEN» edo «IRABAIN», «GARADIGAIN» izango genduke.

\*\*\*

Eta, azkenik, oar bi atzizki oni-buruzko solasaldi au amaitzeko: AURRENEKOA: Urabaien'ek lendabizi, eta Lekuona'k eta Barandiaran'ek aren atzetik, «AIN» atzizkia, artzai-etanekazari-kultura-aroan sortutako atzizkia dala uste dute. Neolitik-aroan sortutakoa beraz.

Ez dut uste. Orrela balitz, atzizki ori ugari aurkituko bait litzake gure egoaldeko lurraldeetan. Aiek dira ba bereiziki gure nekazaritza-lurrak. Eta artzaintza ere, ugari izan da an, beti, artzaintza. Are geiago, gure «AIN» eta Errioxa'ko «ARAN» atzizki bera badira.

BIGARRENA: Naiz «AIN» atzizkia euskeraren lurraldeetan anintz zabaldurik egon, atzizki orrek zer esan nai duan, ziur ez dakigula, oraindik beintzat.

*Latiegi'tar Bixente*